

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Fernando de Rojasen "La Celestina" obra ostegun honetan antzeztuko dute Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdian

Ostiralean eta larunbatean ere programak jarraituko du, eta Shakespeare-ren Macbeth tragedia antzeztuko dute

Jueves, 28 de julio de 2011

Erriberriko Antzerki Klasikoaren hamabigarren Jaialdiarekin ostegun honetan jarraituko dute *La Celestina* antzezlan eginez. Antzezlan 22.30ean hasiko dute Erriberriko Principe de Viana ikastetxean. Ostiralean, uztailak 29, eta larunbatean, uztailak 30, Shakespeare-ren *Macbeth* obra antzeztuko dute, ordu berean, La Cavan.



Macbethen eszena

Jaialdiko zuzendari artistikoak, Alex Ruiz Pastorrek, *Macbethen* zuzendari den Helena Pimentarekin, José Tomé aktorearekin eta Mariano de Paco *La Celestinaren* zuzendariarekin batera aurkeztu ditu obrak.

Ostegunean Erriberri antzeztuko duten *La Celestina* Eduardo Galanen moldaketa da. Ekintzaren dinamismoa, gatazken erritmoa eta denboraren iragaitaren azkartasuna bilatu ditu obraren ideia nagusia islatzeko: Carpe diem, bizitza laburra, gazteriak gozatzeko duen premia zahartzaroak edertasuna desegin aurretik. Bertsio horren bidez, Galanen asmoa tragikomedia publiko gazteagoari gerturatzea eta, egileak esaten duen moduan, obra ikustera datozenen "arimaren azala urratzea" da. Obrako pertsonaia nagusia indarrez eta bizitzaz beteriko emakumea da, eta hitz zuhur eta sorginen bidez limurtzen du.

Pertsonaia nagusiaren papera Gemma Cuervo aktoreak betetzen du, eta obrako beste aktoreak Alejandro Arestegui, Olalla Escribano, Juan Calot, Santiago Nogués, Rosa Merás, Irene Aguilar, Jordi Soler eta Natalia Erice dira.

Macbeth asteburuan

Ostiralean eta larunbatean Shakespeare-ren *Macbeth* antzezlan emango dute. 22:30etik aurrera izango da La Cavan. Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdian Ur Teatro antzerkiak egindako obra horren bertsioa aurkeztuko dute. Idazle britainiarren tragedia eta baliabide klasikoak, teknologia berriak eta izenburu bereko Verdiren operaren konsposizioak

bateratzen dira, Madrilgo Voces Graves koruak interpretatuta, obra osatzen duten giroen, emozioen eta sentimentuen kontrastea eszenaratzeko.

Ur Teatro antzerkiak, lehen aldiz, bere obra klasikoaren bertsioan proiektzioak gehitu ditu, Shakespeare-ren tragediaren ezaugarri den ametsen eta errealitatearen nahasketa islatze aldera. Horri esker, mundutarra eta naturaz gaindikoa dena bateratzen dira; hala, sakontasuna eta dinamismoa lortu eta Macbethen pentsamenduaren oinazea birsortzen da.

José Tomé, Pepa Pedroche, Óscar S. Zafra, Javier Hernández-Simón, Tito Asorey, Belén de Santiago eta Anabel Maurín dira aktoreak. Horiez gain, Mercedes del Castillo, Enrique Onetti, Carlos Hernández eta Luis Miguel Rodríguez eta Sacha Tomek parte hartzen dute.